



NAZIOMETROA

Euskal Burujabetzaren Barometroa

VII. NEURKETA
2025/03



TELESFORO
MONZON
eLab



UPV EHU


partehartuz
IKERKETA TALDEA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

OHAR METODOLOGIKOAK	4
IRAKURKETA	8
EMAITZAK	
1.- JARRERA ERREAKZIONARIOAK EUSKAL HERRIAN	22
2.- MIGRAZIOAK	30
3.- GOBERNANTZA EREDUAREN INGURUKO IRITZIA ETA EUSKAL ESTATUAREKIKO JARRERA	44
4.- ERANSKINAK:	
4.1. INKESTATUEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO ETA SOZIOPOLITIKOAK	55

OHAR METODOLOGIKOAK



Laginketa eta lagina

Laginketa mixtoa erabili da. Laginaren zati bat online komunitate edo panel batetik abiatuta egin da. Herritarrak herrialdearen, sexuaren eta adinaren arabera kuoten bidez aukeratu dira. Guztira 1.355 inkesta erantzun dira online.

Beste zatia inkesta telefoniko bidez egin da, finko eta mugikorretara deituta. Laginketa polietapikoa eta estratifikatua (herrialdea eta udalerraren neurria aintzat hartuta) udalerrak hautatu arte. Ondoren ausazko ibilbideak eta sexuaren eta adinaren arabera kuoten sistema erabiliz herritarrak aukeratu ziren. Guztira 250 inkesta erantzun dira telefonoz.

7. NEURKETA honetan, beraz, 1.355 inkesta egin dira Euskal Herri osoan. Araba, Bizakaia eta Gipuzkoan 636 inkesta egin dira, 393 Nafarroa Garaian eta 306 Euskal Hirigune Elkargoan.

Datuak ondoren haztatu dira, lurraldeen arabera biztanleriaren banaketa errealean arabera (sexua/generoa, adina, jaiotekua, euskara gaitasuna eta ikasketak kontuan hartuta) eta bozka oroitzapena Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko eta Frantziako presidentizaletako lehen itzuliko hauteskundeak kontuan hartuta.

Guztira 156 itemek osatu dute galdera sorta. Batez beste iraupena 11:07koa izan da; laburrena 3:12koa eta luzeena 36:45 izan delarik.

OHAR METODOLOGIKOAK

Aurreko neurketetako laginak eta gaiak:

Neurketa	Lagina	Uneko gaia(k)
1. neurketa: 2020/11	1.289	Pandemia, COVID-19a eta burujabetza,
2. neurketa: 2021/03	1.201	Euskal Selekzioa, "Euskal Herria" terminoa, Nafarroaren harremanak beste lurraldeekin (Nafarroa Garaian), bigarren etxebizitza (Euskal Hirigune Elkargoan), Next Generation (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan)
3. neurketa: 2021/11	610	Larrialdi klimatikoa, Aiete: 10 urte
4. neurketa: 2022/04	1.400	Hezkuntza
5. neurketa: 2023/03	1.597	Osasungintza
6. neurketa: 2024/04	1.422	Pertenentzia

FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Egilea: AZTIKER Soziologia Ikergunea


Unibertsoa: Euskal Herrian bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak (2.812.679 lagun).

Lagina: 1.335 elkarrizketa.

Landa-lana: 2025ko martxoan egin zen. Elkarrizketak telefonoz edo online egin dira, euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):

$\pm\%2,7$ lagin osoarentzat, $\%95,5$ eko konfiantza mailan, eta $p=q=\%50,0$ hipotesirik kontrakoentzat.



IRAKURKETA



Jarrera erreakzionarioak Euskal Herrian

1. Jarrera erreakzionarioen hazkundera sumatzen da.
2. Lurralde eremuari dagokionean, begirada geroz eta urrutiagora bota jarrera erreakzionarioen hazkundera geroz eta handiago somatzen da. Hala ere, Euskal Herrian jarrera horiek hazi egin direla nabarmen edo neurri batean %66ak uste du eta norberaren inguruan %57ak.
3. Jarrera horiek gai zehatzekin lotuz gero, batez ere migrazioan eta aniztasun kulturalen kontuetan ikusten da indartsuen (%61). Ondoren genero berdintasunaren edo feminismoaren kontra somatzen da (%33).
4. Eremu ezberdinetatik egiten diren eskaerei dagokienean, migrazioen eta kultur aniztasunaren inguruan egiten diren aldarrikapenak edo eskaerak gehiegizkotzat hartzen dira. Aldiz berdintasun sozialen eremuan eta are gehiago, klima aldaketaren eremuan egiten direnak gutxiegi direla uste da.

Jarrera erreakzionarioak Euskal Herrian: joera erreakzionarioen azterketa aldagai gurutzaketaren bidez

Aldagaien gurutzaketa aztertzean agerian geratzen da jarrera erreakzionarioak ez direla modu homogeneoan banatzen Euskal Herrian, baizik eta zehazki profilatutako talde sozial eta ideologiko batzuetan pilatzen direla: eskuin muturrean, euskal burujabetzarekiko aurkako jarreretan eta migrazio- eta feminismo-gaietan bereziki. Aldiz, arlo teknologiko eta zientifikoei dagokienean, edota abertzaletasunaren kontrako jarreretan, ez dago diferentzia esanguratsurik.

Inkestak erakusten du Euskal Herriko gizartean tentsio diskurtsibo eta ideologikoak, bereziki bi arlo hauetan daudela: sexu-genero berdintasunean eta mugimendu migratzaileekiko tolerantzian. Bi kasuetan, jarrera erreakzionarioak —hau da, aldarrikapenak "gehiegizkoak" direla hautematea— lotura dute ideologia kontserbadorearekin, nazio subjektibotasun zentralistarekin, eta profil demografiko jakin batzuekin (adin handiagoa eta gizon izatea). Hala, azterketak gizarte polarizatu baten irudia ematen du, progresismoaren eta erreakzioaren artean.

Jarrera erreakzionarioak Euskal Herrian: joera erreakzionarioen azterketa aldagai gurutzaketaren bidez

Ideologia politikoaren eragina:

Eskala ideologikoaren arabera lortutako emaitzek argi erakusten dute jarreraren polarizazioa, bereziki eskuin muturraren eta ezker muturraren artean:

- Migrazio eskubideei dagokienez, gehiegizkoak direla uste dutenen ehunekoak %15etik (oso ezkerrekoak) %56,7ra (oso eskuinekoak) igotzen da.
- Genero eta feminismoaren inguruan, berdintsu gertatzen da: oso ezkerrekoen artean soilik %9,4k jotzen dituzte aldarrikapenak gehiegizkotzat; oso eskuinekoen artean, ia erdiak (%47,7) hala uste du.

Ezkerreko posizio ideologikoen, beraz, jarrera progresistago eta eskubide-zabalkundearen aldekoagoak erakusten dituzte. Kontrara, eskuinaren barruan aldarrikapen sozialekiko erreakzio kritikoagoa eta susmo defentsiboagoa nabarmentzen da.

Euskal estatuaren aldekoen eta aurkakoen arteko arrakala:

Euskal Estatuaren aldeko jarrerak ere lotura estua du aldarrikapen sozialekiko tolerantzia mailarekin:

- Generoaren inguruan, estatuaren aldekoen %53,1ek aldarrikapenak egokitzen dituzte, eta soilik %15,1ek gehiegizkotzat.
- Estatuaren aurkako artean, joera erabat kontrarioa da: %42,4k gehiegizkotzat jotzen dituzte eta %22,4k soilik egokitzen.

Jarrera erreakzionarioak Euskal Herrian: joera erreakzionarioen azterketa aldagai gurutzaketaren bidez

Adinaren arabera joerak: belaunaldi arteko arrakalak

Adin-tartearen arabera ere jarrera-aldaketak agerikoak dira, baina arloaren arabera desberdinak:

- Genero berdintasunaren auzian, aldeak ez dira handiak, nahiz eta batetik, adinean gora egin ahala jarrera aldekotasunerantz mugitzen den eta bestetik, aldarrikapenak 'gehiegi' iruditzen zaien artean, 30-44 urte tartekoak nagusitzen diren.
- Migrazio eskubideetan, aldiz, arrakala 30 urteetan ikusten da: hortik gorakoek jarrera itxiagoa agertzen dute (%40 inguruk gehiegizkotzat dute), gazteen %22,9ren aldean.

Honek erakusten du belaunaldi arteko desberdintasunak, aldarrikapenen edukiarekin intersekzionalki lotuta daudela. Gazteen artean genero berdintasunarekiko tentsioa handiagoa izan daiteke, migrazioari dagokionez tentsio hori nagusiagoetara trasladatzen da.

Sexu-genero berdintasuna: jarrera generoaren arabera

Generoaren arabera, batetik polarizazio handiagoa antzematen da progresismoa eta erreakzionarioen artean genero berdintasunaren eremuan, migrazioen eremuan baino eta bestetik, jarrera erreakzionario indartsuagoak ikusten dira migrazioen eremuan, bereziki gizonen artean:

- Gizonen artean %32,7k genero aldarrikapenak gehiegizkotzat jotzen dituzte; emakumeen artean ehuneko txikiagoa da (%19,5).
- Emakumeen %26,9k gutxiegi direla uste dute, gizonen %17aren aurrean.
- Migrazioen eremuan, gizonen artean %49,7k aldarrikapenak gehiegizkotzat jotzen dituzte; emakumeen artean ehuneko txikiagoa da (%25,0).

Migrazioak (I)

5. Migrazioari buruzko ikuspegiak aztertuta, Ipar eta Hego Euskal Herriko migrazio ezaugarriak ezberdinak izanik, bietan inmigrazioarako arrazoi nagusi bezala bizi-kalitatea hobetzea (edo jatorrizko bizi-baldintza sozioekonomiko txarrak) dela uste da.
6. Euskal Herrira bizitzera datorren pertsona bat euskal herritar gisa onartua izateko bertan bizi eta lan egitea da bete beharreko baldintza nagusia gehiengo zabal batentzat (%60), bertan jaioa izatearen (%21) gainetik. Espainiar/frantziar herritartasuna izatea %5ak hautatu du.
7. Migrazio eskumenei dagokienean, gehiago dira Lurraldeko Gobernuak izan beharko lituzketela uste dutenak (%47) estatuen menpe egon beharko liratekeela uste dutenak baino (%30).
8. Pertsona migratuak modu egokian integratu daitezzen hemen bizitzea eta lan egitearekin nahikoa dela uste da (6,1 batezbeste), baina gizartean modu aktiboan agertzen direnak modu egokiagoan integratuko liratekeela (7,1) uste da. Hemen ez direlako jaio ezin direla integratu pentsatzen dutenak oso minoritarioak dira.

Migrazioak (II)

9. Etorkizuna irudikatzean, migratzaileek hemen izan beharko luketen lekuari buruz, gizarte inklusibo baten aldeko jarrera nagusi da (%48k uste du funtsezko papera dutela, gizartearen parte gisa). Diskurtso murriztaileen presentzia nabaria da, izan ere migrazioari buruzko ikuspegi mugatuagoa edo murriztailea dutenak %20 osatzen dute (bertakoek lehentasuna izan behar dutela uste dutenak %13, eta etorkinak galarazi nahi dituztenak %6). Tartean migratuek paper garrantzitsua izango dutela, baina muga batzuk ezarri beharko lirakekeela diotenak %26 dira.
10. Jende gehienak uste du euskararen transmisioak eta euskalduntze prozesuek "asko" edo "zerbait" laguntzen dutela (%52 eta %60 arteko adostasunarekin), bereziki jendartearen kohesionatzeko gaitasuna da positiboki baloratuena (%60). Arrazakeriaren aurkako eraginean ikusten da eraginik txikiena (%52,2 baiezko mailan), eta jarrera eszeptikoagoa nabaritzen da hemen (ia %40k uste du gutxi edo batere ez duela laguntzen).
11. Pertsona migratuek euskara ikas dezaten oztopo nagusia iruditegian (euskara zaila da) eta motibazio faltan ikusten da.

Migrazioak (III)

12. Euskara erabilera gutxitzea eragin dezaketen faktoreen artean euskaldunek euskaraz ez egitea ikusten da nagusi bezala (%36). Bigarren maila batean aurkitzen dira aisialdiaren globalizazioa (%24), atzerriko inmigrazioa (%24) eta hizkuntza politika sendo baten falta (%21).
13. Azkenik, jatorri eta kultur aniztasun testuinguru batean, euskara eta euskal kultura antzera jarraituko duela uste du gehiago zabal batek (%59). Eta gehiago dira indartuko direla uste dutenak (%22), desagertuko direla uste dutenak baino (%13).
14. Inkestaren datu gurutzatuen arabera, migrazioarekiko jarrera positiboagoak daude eskala ideologikoaren ezker muturrean eta burujabetzaren aldeko jarrerekin lerrokatzen diren kolektiboetan. Aldiz, jarrera kontserbadore eta subiranotasunaren aurkako jarrerak, oro har, muga gehiago jartzen dizkiete etorkinen eskubideei eta haien gizarteratzeari.

Euskal herritartasuna eta onarpen irizpideak: inklusioaren eta esentzialismoaren arteko tentsioa

Euskal gizartean, herritartasuna ulertzeko moduak anitzak dira, baina joera nagusi bat argi ageri da: bizitoki eta jardun aktiboa (bizitzea eta lan egitea) da baldintza nagusi onartua, jatorri biologiko edo jaioterriaren aurretik. Hala ere, ikuspegi hori ez da homogenea, eta faktore ideologiko, nazional, geografiko eta demografikoen arabera aldaketa nabarmenak daude.

Aztertutako datuek bi irizpide nagusiren inguruko jarrerak islatzen dituzte:

- Bizitokia eta lan-jarduera Euskal Herrian, herritartasunaren oinarri gisa.
- Jaiotza-lekua baldintza gisa, jarrera esentzialistago eta baztertzaileago baten adierazle.

Galdera honen bidez, ikus daiteke nola gizarteak inklusioaren eta esklusioaren irizpideak eraikitzen dituen, eta zein faktore soziopolitiko, identitario eta demografikok baldintzatzen duten ikuspegi hori.

Euskal herritartasuna eta onarpen irizpideak: inklusioaren eta esentzialismoaren arteko tentsioa

Eskala ideologikoa:

- Ezkerreko sektoreetan (%78 inguruan) nagusitzen da bizitzeko eta lan egiteko baldintza herritartasunaren oinarri gisa.
- Eskuineko muturrean (%42,9), portzentaje hori askoz txikiagoa da, eta jaiotza baldintza gisa defendatzen dutenak %23,8ra igotzen dira.

Euskal Estatuaren alde/aurka:

- Euskal Estatuaren aldekoen artean %63k bizitzea eta lan egitea nahikotzat jotzen dute, eta jaiotza irizpidea defendatzen dutenak soilik %14,6 dira.
- Estatugintzaren aurkakoen artean, esentzialismoa handiagoa da (%17,8), nahiz eta oraindik gutxiengoa izan.

Euskal abertzaletasun maila:

- Abertzaletasun handiena dutenen artean %68,1ek irizpide irekia babesten dute; jaiotza irizpidea %7,5ek soilik defendatzen du.
- Ez abertzaleen artean, jaiotza irizpidea %24,7ra igotzen da.

Espainiar/frantziar nazionalismoaren eskala:

- Nazionalismo estatu-zentrala dutenek probabilitate handiagoa dute jaiotza defendatzeko (%31,5 oso nazionalistetan).
- Nazionalismo horren aurkakoetan, %11-14 artean bakarrik daude posizio esentzialista horretan.

Euskal herritartasuna eta onarpen irizpideak: inklusioaren eta esentzialismoaren arteko tentsioa

Bizitokiaren arabera desberdintasunak:

- Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroako Foru Komunitatea (NFK): %60 inguru irekitasunaren alde.
- Euskal Hirigune Elkargoan (EHE): %26 soilik irizpide hori babesten du. Jaiotza irizpidea babesten dutenak %50 inguruan daude.

Jaioterria eta familia-jatorria: jarrerak norberaren sustraien arabera

- Gurasoak Estatutik kanpo dituztenen artean, esentzialismoa %39,6koa da, eta irekitasuna %38koa.
- Norberak eta gurasoek Euskal Herrian jaiotakoek irekitasun maila altuagoa dute (%64,1), eta esklusibismoa txikiagoa da (%13,8).

Adinaren arabera:

- Gazteak (18-29 urte): %48k jaiotza irizpidea defendatzen dute, eta soilik %34k irekitasuna.
- 30 urtetik gorakoetan joera alderantzizkoa da: gehiengo zabal batek bizitokia eta lan egitea nahikotzat jotzen du (%52-70 artean).

Generoaren arabera:

- Emakumeak: irekitasun handiagoa (%64,4) eta esentzialismo txikiagoa (%18,8).
- Gizonak: irekitasun txikiagoa (%53,7) eta esklusibismo handiagoa (%24,2).

Euskal herritartasuna eta onarpen irizpideak: inklusioaren eta esentzialismoaren arteko tentsioa

Beraz, inkesta honetako datuek erakusten dute "euskal herritartasuna" kontzeptua ez dela neutroa, eta ez dela modu unibokoan ulertzen. Bi joera nagusi bereiz daitezke, non lehenengoak bigarrenak baino nabarmen indar gehiago duen:

- Ikuspegi irekia, non bizitzea eta komunitatean parte hartzea nahikotzat jotzen den herritartasuna esleitzeko.
- Ikuspegi esentzialista, non jaiotza edo jatorria baldintza gisa ulertzen diren.

Hauek ez dira soilik ikuspegi moral edo kulturalen arteko ezberdintasunak, baizik eta identitate politiko eta sozial sakonen isla dira. Joera hauek politikoki, sozialki eta kulturalki segmentatutako gizarte baten adierazgarri dira.

Gobernantza

15. Estatus politikoak aldatzeko orduan, babesten den modu nagusia herritarrei galdetuta da (erreferendum bidez %53). Tokiko legebiltzarrek %31ko babesa jasotzen dute eta estatuetakoko asanblada edo kongresuak %21.
16. Antzera gertatzen da Ipar Euskal Herriko hautetsiak hautatzeko moduaren inguruan, %60a herritarrek bozka zuzenaren bidez hautatzearen alde ageri da, orain arteko sistema defendatzen dutenen gainera (%37).
17. Euskal Herriko lurraldeen artean harreman gehiago izatea nahi da (%37), are %21ak erakunde bateratuak nahiko lituzke, bereziki osasun zerbitzuetan, baina baita hezkuntzan, eremu ekonomiko edota kulturaletan ere.
18. Harreman horiek bereziki osasun zerbitzuetan izateari ematen zaio garrantzia oso handi bat (%67). Gero Hezkuntzari (%60,3), harreman ekonomikoari (%60,9) eta kulturei (%58,5). Euskararen sustapenerako aurreko horiei baino gutxiago, baina garrantzia handia ematen zaio ere (%49,5).
19. Euskal herritar multzo handienak uste du konpententzia gehiago behar direla Euskal Herrian (%44), egungoa egokia dela uste dutenen gainera (%33). Eskumen gutxiago edo estatu erabat zentralizatua nahiago dutenak oso gutxiengoan daude.

Demokrazia, independentzia, Euskal Estatura


20. Galdeketen emaitzek sistematikoki erakusten dute Euskal Herrian gehiengo zabal batek uste duela, bertako instituzioetan adostasunik balego, Espainiako edo Frantziako Estatuak onartu egin beharko luketela erreferenduma.

- Serie osoan zehar %52tik gorako babesa izan du, 2025ean areagotu egin dena: %62,7.
- "Onartu egin behar luke" aukera %62,7koa da azken neurraldian (NM7), eta "Debekatu" aukeraren beherakada eman da %13,5ra.


21. Independentismoa ez da gehiengo sozial bat, baina kontrako jarrera ere ez. Independentziaren inguruko jarrerak, aldekoak eta kontrakoak, nahiko egonkorak dira. Kontrako jarrera %42-43 bueltan mantendu da serie ia osoan zehar. Aldekotasuna, %22-25 artean.

22. Euskal Estatuari buruzko galderari dagokionean, euskal gizarteak ez du oraindik posizio kolektibo irmorik. Aldeko jarrera da gehiengo erlatiboa baina ez hegemonikoa (%38,5 azken neurketan, 3,3 puntu gora eginez), kontrako jarrera ahulagoa da ordea (%26,5, serie guztiko balio txikiena), eta zalantzaren zona zabal bat hazten ari da; abstentzioa %13,2tik %18,8ra eta ED/EE %13,7tik %16,1ra pasa da seriearen hasieratik. Bi hauek batera hartuta, ia %35ek ez dute posizio argirik adierazten 2025ean. Itxuraz, askorentzat estatu propioaren ideia ez dago nahikoa artikulatua edo barneratua, edo eszenatoki horren ondorioak ez dira argi ikusten.


Azken urteotan jarrera ezkor edo erreakzionarioak (jarrera defentsibo edo areriotsuak) handitu direla uste duzu?
(Baiezkoen %)



Zure inguruan, zein gairen inguruan ikusten dituzu jarrera erreakzionarioak indartsuen?
(3 aukera hautatu zitezkeen)




Azken urteetan hurrengo eremuetako bakoitzean giten diren aldarrikapenak egokiak dira, gehiegi eskatzen dute edo gutxiegi eskatzen dute?




Aldagaien araberako analisia

(Eskala ideologikoa)

Atzerriko migratuen eskubideak eta aniztasun kulturean aldarrikapenak




Generoa eta feminismoaren aldarrikapenak




Aldagaien araberako analisia

(Adinaren arabera)

Atzerriko migratuen eskubideak eta aniztasun kulturean aldarrikapenak



Generoa eta feminismoaren aldarrikapenak





Aldagaien araberako analisisa

(Sexu/Generoaren arabera)

Atzerriko migratuen eskubideak eta aniztasun kulturean aldarrikapenak


Generoa eta feminismoaren aldarrikapenak




Aldagaien araberako analisia

(Euskal Estatuarekiko jarreraren arabera)

Atzerriko migratuen eskubideak eta aniztasun kulturean aldarrikapenak



Generoa eta feminismoaren aldarrikapenak




2.- MIGRAZIOAK

https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/img/gestor/52/61/gi_65261.jpg




(IEH) Azken urteetan gure gizartean Frantziatik jasotako migrazioa hazi da eta aurreikuspenek diote jarraitu dezakeela.
 (HEH) Azken urteetan gure gizartean migrazio mugimenduak hazi dira eta aurreikuspenek diote jarraitu dezaketela.


Zergatik uste duzu migratzen dutela pertsona horiek? (Baiezkoen %)




Euskal Herrira bizitzera datorren pertsona bat euskal herritar gisa onartua izateko hurrengoetatik zer baldintzarekin duzu adostasun gehien:




Migrazio konpetentziak nork eduki beharko lituzke?




Eta pertsona horiek hemen modu egokian integratu daitezzen, hurrengo faktorekin Otik 10era zein adostasun maila duzu?
(Batezbestekoa)




Etorkizuna irudikatzen duzunean, zer iritzi duzu migratzaileek hemen izan beharko luketen lekuari buruz?




Zein neurritan uste duzu euskararen transmisioak eta euskalduntze prozesuek laguntzen dutela:




Zure ustez zein oztopo nagusi dituzte Frantziatik iritsitakoak/migratzaileek euskara ikasteko? (Erantzun anitza)



Euskara erabilera gutxitzea eragin dezaketen faktoreen artean, zein jotzen duzu garrantzitsuenentzat? (Bi aukera zitezkeen)




Jatorri eta kultur aniztasun testuinguru batean, euskara eta euskal kultura:




Euskal Herrira bizitzera datorren pertsona bat euskal herritar gisa onartua izateko hurrengoetatik zer baldintzarekin duzu adostasun gehien:

Aldagaien arabera

Eskala ideologikoaren arabera




Euskal Estatuarekiko jarreraren arabera




Euskal Herrira bizitzera datorren pertsona bat euskal herritar gisa onartua izateko hurrengoetatik zer baldintzarekin duzu adostasun gehien:

Aldagaien arabera

Euskal abertzale sentimenduaren arabera




Espainiar/frantziar abertzale sentimenduaren arabera




Euskal Herrira bizitzera datorren pertsona bat euskal herritar gisa onartua izateko hurrengoetatik zer baldintzarekin duzu adostasun gehien:

Aldagaien arabera

Bizi lurraldearen arabera




Jaio lurraldearen arabera




Euskal Herrira bizitzera datorren pertsona bat euskal herritar gisa onartua izateko hurrengoetatik zer baldintzarekin duzu adostasun gehien:

Aldagaien arabera

Adin-tartearen arabera




Sexu-generoaren arabera




3.- GOBERNANTZA EREDUAREN INGURUKO IRITZIA ETA EUSKAL ESTATUAREKIKO JARRERA




Euskal Elkargoko / Nafarroako Foru Komunitateko / EAeko estatus politikoa aldatzeko, nola uste duzu hartu beharko litzatekeela erabakia?
(Erantzun anitza)




Ipar Euskal Herriko hautetsiak hautatzeko zein aukera nahiago duzu?




Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Elkargoaren artean zein harreman politiko nahiago zenuke?




Eremu administratiboen arteko harremanak indartzeari dagokionez (Euskal Elkargoa -CAPB-, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea), zer garrantzi ematen diozu horietako bakoitzari



Euskal Elkargoko (CAPB) / Nafarroako Foru Komunitatearen / Euskal Autonomia Erkidegoko egungo kompetentzia maila?




Zure iritziz, Euskal Elkargoak /Euskal Autonomia Erkidegoa / Nafarroako Foru Komunitateak bere etorkizun politikoa erabakitzeko eskubidea izan beharko luke?*
(Baiezkoen %)




* NM1etik NM6ra eremu bakoitzarengatik euskal herritar guztiei galdetu zaie. NM7tik aurrera dagokion lurraldeko herritarrei bakarrik.

Eusko Legebiltzarrean / Nafarroako Parlamentuan / Euskal Hirigune Elkargoan adostasun politikoa egongo balitz lurralde honen etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzearen alde, Espainiako/Frantsiako Gobernuak onartu edo debekatu egin beharko luke erreferendum hori?




Zein neurritan zaude ados Espainiatik / Frantziatik independizatzearekin?



- Demagun Euskal Autonomia Erkidegoan/Euskal Hirigune Elkargoan alderdi politiko guztiek edo gehienek adostu dutela Euskal Estatuari buruzko erreferenduma egitea eta Madrilek/Parisek onartu duela, beraz erreferenduma guztiz ofiziala eta onartua da.
- Demagun Nafarroako Foru Komunitatean alderdi politiko guztiek edo gehienek adostu dutela Nafarroa barne duen Euskal Estatuari buruzko erreferenduma egitea eta Madrilek onartu duela, beraz erreferenduma guztiz ofiziala eta onartua da


Egoera horretan, Euskal Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?




4.- ERANSKINAK

4.1.- INKESTATUEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO ETA SOZIOPOLITIKOAK


Jaiolekua




Jaiolekua (Norbera eta gurasoena kontuan hartuta)




Euskara ezagutza




Lan egoera



Dirusarrerak



Batezbestekoak (0-10 eskala)





TMeLab-en ekimenek erakunde hauen dirulaguntza dute.



NAZIOMETROA

Euskal Burujabetzaren Barometroa

VII. NEURKETA 2025/03



TELESFORO
MONZON
eLab



partehartuz
IRERRETA TALDEA